

SUPER FLUMINA BABYLONIS, EUSKARAZ.

Babiloniako uren bazterrean,
 Minez gare jarri ipuru gainean,
 Eta an ¡oi Sion! zutaz oroitzean,
 Oro eman gare nigar uarretan.

Gure arrabidak saar adarretik
 Dilindan or daude... Beude or išilik!
 Kendu gaituztenak gure erritarik
 Entzun nai dute ango kantetarik.

Unat gaituztenek ekarri gatibu
 Entzun nai dute ango zenbait kantu.
 Oi baina guk nola, zer kantu sakratu
 Atze-erri untan kanta dezakegu.

Aanzten bazaitut, Sion onetsia,
 Bertan iar bekit eskuin alderdia!
 Oroitzen ez banaiz zutaz, oi erria,
 Ao-gainari lot daidala mii!

Zutaz, beti zutaz ene asmuetan...
 Zurekin gogoa, biotza zu baitan!...
 Zutaz kanpo banu irri bat ortzetan,
 Nion bozten banaiz il benedi bertan!

Oroit zaite, Jauna, Edomen semeaz,
 Sion errausteko egun gogor artaz,
 Edom nola zagon izkola marrumaz,
 «Chau! chau dena burdin eta suaz!»

Babilondar andre gaištagina, iri
 Niri egin gaitza beakin itzuli,
 Aurra bezayane bota arriari!
 Ez azala niork izan urrikari!

DUVOISIN.